

ERABAKIA, 2021eko urtarrilaren 11koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena aipatzen den lanpostua izendapen askearen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA onartzeko dena.

F 109

## Kargudunaren idazkaria

### KONTABILITATE ETA AURREKONTUEN GERENTEORDETZA

Deialdia 2020ko azaroaren 16ko UPV/EHUren gerentearen Erabakiaren bidez egin zen eta 2020ko azaroaren 26ko EHAA n argitaratu zen.

#### ARAU APLIKAGARRIAK

•190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.

•ERABAKIA, 1996ko urriaren 23koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen LanBaldintzak Arautzeko Hitzarmena argitaratzeko dena. (azaroaren 12ko EHAA).

Beraz, 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko Erabakiaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz, (2017 otsailaren 3ko EHAA), Gerentzia honek

#### ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda argitaratzea, UPV/EHUko web-orrian. Hautaketa eta Hornikuntza. Barne-deialdiak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiokete Gerentzia honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan. Horretarako hilabete biko epea izango da, erabaki hau UPV/EHUaren web orrian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita (Deialdiaren 1. oinarrian).

Leioan, 2021eko urtarrilaren 11n

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko Gerentzia

Stua.: Miren Lorea Bilbao Arteche



# I. ERANSKINA

<b>ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA</b>			
IZENDAPEN ASKEA		2020ko azaroaren 16ko DEIALDIA	EHAA: 2020/11/26
1784	F 109	Kargudunaren idazkaria	Hor. 18 HE 2.95/1
<b>KONTABILITATE ETA AURREKONTUEN GERENTEORDETZA</b>			

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

\* BAZTERTZEKO ARRAZOIAK: 1: Epez kanpo aurkeztutako eskabidea; 2: Deialdian onartzen diren talde edo eskalen batean karreradun funtzionarioa ez izatea; 3: Lanpostua betetzeko eskatutako titulazioa ez edukitzea; 4: Eskatutako hizkuntz eskakizuna ez edukitzea; 5: UPV/EHUko funtzionarioa ez izatea; 6: Deialdia argitaratu aurreko urtebetean, prozedura honen bidez, zerbitzu betekizunetarako izendapena izatea; 7. Eskatzen den hizkuntza jakitearen ziurtagiria ez aurkeztea. 8. Erregistratu gabeko eskabidea. 9. Deialdiari uko egitea. 10 Behin beineko funtzionarioa besta lanpoltsatik kontrattua; 12 Karredun funtzionarioa ez izatea.